

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseilaren 14/2021 Foru Dekretua, apirilaren 13koa. Onespena ematea mahasti zaharrak matentzeko laguntzen oinarri arautzaileen aldaketari eta lerro horren 2021erako deialdiari.

Ekainaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2018rako deialdia; 2019rako deialdia, aldiz, ekainaren 4ko 366/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 19/2020 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin ziren oinarri arautzaile horiek, eta Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 192/2020 Foru Dekretuaren bidez laguntza horien 2020rako deialdia egin zen.

Hiru deialdi horietan lortutako esperientziari esker, batez ere landaketa data errealean kontrolari dagokionez, agerian geratu da egungo mahastizainek, oro har, ez dakitela zein diren landaketa data errealak, mahasti zaharren lursailen egitura eta jabetzaren banaketa dela eta. Horrez gain, kontuan hartu behar da oso mahasti zaharrak direla eta balitekeela duela 70 urte baino gehiago landatuak izatea, eta, gainera, mahastien erregistroko datak ez dira zehatzak; ondorioz, litekeena da mahastizainek data okerrak izatea. Era berean, zehapenak aplikatzeko aintzat hartzen diren aitortutako eta egiaztatutako azalaren arteko ezberdintasun tarteak oso txikiak direnez eta laguntza eskaeraren xede den mahasti kopurua ere txikia izaten denez, baliogabetutako mahasti bakar bat azaleraren ehuneko handia izaten da askotan, eta, horren ondorioz, zehapen handiak ezartzen dira, bai eta oso alde txikia dela-eta laguntza erabat baliogabetzen ere, eta, beraz, mahastizain bati zehapena ezarri gero, baliogabetutako mahastiengatik dirurik ez jasotzeaz gain, kontserbazio interes handiko mahasti baliodunen azalera garrantzitsuak baliogabetzen zaizkio, eta horrek arriskuan jar dezake dirulaguntzaren xedea.

Beraz, ildo horri jarraituz, eta mahasti mota horren sustapena ahalik eta eraginkorrena izan dadin, beharrezkoa da oinarri arautzaileetan jasotako zehapen maila desberdinak eragiten dituzten aitortutako eta egiaztatutako azalaren arteko aldeen ehunekoak aldatzea, laguntzaren helburua hobeto lortzeko.

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuan laguntza lerro horretarako kreditua dagoela, egokia da mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2021erako deialdia onestea.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren 6. artikuluko 4. apartatua, zeinak arautzen baititu aitortutako eta egiaztatutako azalaren artean alderik izanez gero ezarri beharreko murrizketak. Honela geratuko da idatzita:

6.4 Aitortutako azalaren eta egiaztatutako azalaren arteko aldea ehuneko 20tik edo bi hektareatik gorakoa bada, baina egiaztatutako azalaren ehuneko 50etik edo hortik beherakoa, aitortutako azalera oinarritzat hartuz kalkulatu da laguntza, baina egiaztatutako aldearen halako bi murriztuta.

Bigarrena. Aldatzea Foru Gobernu kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren 6. artikuluko 5. apartatua, zeinak arautzen baititu aitortutako eta egiaztatutako azaleren artean alderik izanez gero ezarri beharreko murrizketak. Honela geratuko da idatzita:

6.5 Aldea ehuneko 50etik gorakoa bada, ez da inolako laguntzarik emango azalerearengatik.

Hirugarrena. Onestea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2021erako deialdia. Hona hemen xehetasunak:

– Eskeraek aurkezteko epea eta lekua: 2021eko ekainaren 1etik uztailaren 30era arte, biak barne.

Eskeraek hemen aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroak.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako erregistroetako batean.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-ayuda-mantenimiento-y-conservaci%C3%B3n-de-vinedos-viejos?inheritRedirect=true&redirect=%2Fes%2Finicio%2Ftramites%3Fcategory%3D6034696%26category%3D6035225%26q%3Dvi%25C3%25B1edo>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

– Kreditu erreserba: 250.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2021erako gastu aurrekontuaren "Mahasti zaharrak mantentzeko plana" izeneko 40.1.04.44.00.7.7.0.00.01.7 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 21.1.21.105.848/000). Dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioarengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2021eko deialdi honetan 4.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapen bakarra

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean

Vitoria-Gasteiz 2021eko apirilaren 13a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE